

AMA

Enma Arestegui, 13 urte

Hazparne

1956ko primaderan zen Carolina sortu. Wendy-k, bere amak hogeita bat urte zituen eta ezkondu berri zen banka-gizon batekin. Erran ez dudana da bere ama, Wendy Dzar, oso famatua zela aktorea zela: Europa osoan ezagutua zen jokalaria gisa. Wendy-k, bere lanbidea ontsa hasita zeukan, horregatik zen Carolinaren sortzea ez hain ongi etorria izan. Wendy emazte antolatu eta agintari bat zen. Beti bazekien zer, noiz eta non egin behar zuen. Denak bere larderiaren menpe zeuden. Bankariarekin ezkondu zen, gizon zuzen, harro, argi, zorrotz eta aberatsa zelako. Bera bezalakoa. Baina egia erran, ez zizkion bere izaerak zinemarako bortak ideki, ez, fama bere edertasunari zor zion: ile beltz luzeek aingeru bisaia inguratzen zuten; begi urdin, ilun, goxo eta inozenteak zeuzkan, gogorak, hotzak eta mespretxuz beteak izaiten ahal zirenak. Boz xarmagarriak eta ametsetako gorputzak haren irudi bikaina borobiltzen zuten.

Carolinen sortzean, amaren bizi antolatua pixka bat mugitu zen, baina pentsatuz nini bat ez zela munduaren bukaera, eta erditzetik landa umea norbaiten eskuetan ezartzen ahalko zuela, hobeki sentitu zen. Dena pentsatu zuen bezala pasatu zen: egunkarientzat Carolinarekin bizpahiru argazki hartu-eta, Wendy-k emazte baten eskuetan ezarri zuen alaba, eta Peter senarrarekin Kanadara joan zen filma baten egitera. Carolinaz arduratzen zen emaztea Cassandre deitzen zen. Carolinarentzat ama bat izan zen hura. Wendy etxean zenean ere, Carolinak arratsean bakarrik ikusten zuen. Alabak ama adoratzen zuen. Honek ontsa bazekien, baina begirada hesten zion amodioz betetako neska honi. Hala portatzen zen, Carolina itsusia zelako; beharbada ez higuingarria izaiterainokoan, baina nehork ez zuen ulertzen nolaz Wendy bezalako emazte batek halako haur bat sortzen ahal zuen. Wendy-k, begirada kritiko hauek gaizki hartzen zituen eta bere kexa guztia alabarenganantz itzultzen, hari bost minutu guziz oroitaraziz higuina, zikina, tuntuna.... zela.

Carolinak sufritzen zuen, baina bere argitasunak amaren ohar gaiztoak ordaintzen zituen. Bazekien bere dohain bakarra bere argitasuna zela; orduan, ikasle bikaina bilakatu zen. Eta zer poza, nota onak zituen aldi guziz amak irriño ttipi bat egitean! Zer poza, maila bat jauzi egiterakoan aitak burua ferekatzean! Sei urtetan zortzi urtekoekin segitzen zuen. Bere amak emaitza bikainei interesik gabeko begirada bat botatzen bazien, Cassandre beti hor

zen bere kontsolatzeko, goxokien emaiteko edo bere bihurrikerien gordetzeko.

Baina zazpi urte betetzean, amak aski ukan zuen Cassandre ikusteaz bere haurrarekin ama bat bezala portatzen eta kanporatu zuen, erranez Carolina aski handia zela bakarrik bere buruaz okupatzeko. Carolinak asko negar egin zuen eta bere esku ttipiekin entseatzen zen ahal bezain laster gutunen idaztera. Baina fite, Cassandre bere bizitik atera zen.

Hortik landa, bizia enoagarria bilakatu zen beretzat; beti nota onak ukaiten zituen, baina bere amarekin harremanak ez ziren hobetu. Bere aitarekin bai! Egia erran, gizona asko aldatu zen; bera, hain fier bere mustatxa beltzarekin, bere buru seriozarekin... bere emaztearen menpe gizon ahul eta isil bat bilakatu zen: bere emazte indartsu eta famatuaren itzala. Zeren Wendyren fama ez zen tipitzen ari: hogeita bederatzi urtetan oraino aktoresaren oso ezagutua eta oso galdegina zen. Peter haren diruaz arduratzen zen, eta usu bere emazteak behartzen zuen berekin filma bidaietara joaitera, Carolina bakarrik utziz beren Amsterdameko etxe handi eta hutsean. Itzultzen zirenean, amak egin zuen filma kritikatzeko edo laudatzen zuen, irabazi zuen diruaz mintzatzen zen eta abar... Aitak noizbehinka opari txiki bat ekartzen zion alabari, baina gehienetan bere ganbarara igaiten zen hitzik erran gabe. Peter entseatzen zen zuzena izaitera Carolinarekin, baina etxean guti izanez ...

Handituz Carolina ez zen edertzen; bakartia, lanari lotua eta isila bilakatu zen. Wendy-k Holly-

wood deskubrituz geroztik, urtearen erdia Amerikan iragaiten zuen, batzuetan senarrarekin, beste batzuetan gabe. Garai hartan Carolinak bederatzi urte zituen eta bere egunak irakurtzen, eskolara joaiten eta bere gatuarekin jolasten pasatzen zituen.

Ez zuen lagun berezirik, eskolan oso bakartia baitzen. Familiarekin ez zuen harremanik: bere aitatxi, amaren aldetik, zortzi urte zituenean hil zenez geroztik, bere amaren aldetiko familiarik ez zuen gehiago ikusten. Bere amatxik kexu iduri zuen alabarekin eta Wendy-ren ahizpa duela aspaldi ez zen haiekin mintzatzen. Bere aitaren aldetik sinpleagoa zen: Peter-ek bakarrik anaia bat zeukan; hau Australian bizi zen itsasontzi gidari gisa, eta haien gurasoak zaharrak izanez, ez ziren sekula heldu Amsterdamera.

1968ko urriaren 16ean, Carolinak hamabi urte zituenean, gertakari izigarria gertatu zen: auto istripu batean bere gurasoak hil ziren. Amsterdamera itzultzen ziren eta zubi baten murrua hautsi-eta, urera erori ziren; nehork ez zuen jakin nola gertatu zen, ito edo hil zirenez autoan, baina, has-teko, mundu osoa jakinean izan zen.

Carolinarenean etxean bi gizon beltzez jantziak horrela mintzatu zitzaizkion neskatxari istripuaren biharamunean:

–Egun on, berri txar baten mezulari gara; otoi, erranen dizuguna entzuteko prestatu... prest zara? Hara, zure aita eta ama auto istripu batean hil ziren atzo arratsean...

Carolinaren begi argietan itzal bat pasa zen, baina ez zuen malko bat isuri, soinu bat egin eta ez zen mugitu ere. Gizonek tristurazko krisi bat goaitatzen zuten, baina ikusiz neska gaztearen sentimendu eskasa segitu zuten:

–Haien ehorzketak bihar izanen dira, eta ikusiz haien haur bakarra zarela... oso aberatsa zara... zure ontasunak bederatzi milioi libera eta erdira heldu dira; bistan da, erabiltzen ahalko dituzu bakarrik sei urteren buruan! Eta badut galdera bat... ikusiz ez duzula gehiago gurasorik, nahi genuen jakin bazenuenez ideia bat, bada, norekin egonen zaren edo... Ez? Berdin du, hori guzia bihar ikusiko dugu. Momentuko Elisa zure gurasoen zerbitzaria zutaz arduratuko da. Adio, eta barkatu hain berri txarra ekartzeagatik!

Carolina barnera sartu zen eta leihotik begirada-ekin segitu zituen bi gizonak eta serioски pentsatzen hasi zen: ez zuen nehor eta nehork ez zuen hartu nahiko. Bere Australiako osaba ere, ez zen ehorzketetara etorriko; behar bada ez zekien bere anaia hil zenik ere... Amaren kusiak? Ez, milesker, beti dena kritikatzeko, iduri zuen haien mundua jeloskorkeriaren eta kutzukeriaren inguruan itzultzen zela... Amatxi, amaren aldetik, hor zuen, baina ikusiz nola pasa zen joan zen Eguberritan... eta bere aitaren aldeko arbasoak akituegiak eta zaharregiak ziren beraiekin hartzeko. Bazituen bi izeba urrun, behar bada. Baina berdin zuen, bihamunean ikusiko zuen.

Ondoko egunean arropa iluna jantzirik, ileak orraztaturik, Elisarekin elizara joan zen. Han, harriturik egon zen: milaka eta milaka jende elizaren inguruan ziren negarrez orroka, loreak eskuetan, burdinazko hesi batzuen gibelean, bizpahiru poliziek debekatzen baitzuten gehiegi hurbiltzea. Familia guzia negarrez ari zen: kusi, izeba eta beste guziak. Carolina pixka bat gaizki sentitu zen ez baitzuen negar egiten. Omenaldi osoan ez zitzaion malko bat erori, baina ehortziak zirenean malko herabe batzuk eskapatu ziren bere mateletan behera. Geroago, bere lore sorta hilobiaren gainean pausatu zuenean, oroitu zen bere amaz, ama ederra, hila baina betirako ederra. Ama, bere alaba maitatu ez zuena. Baina zergatik? Eta bere aitaz oroitu zen; bera, entseatzen zena zuzena izaitera, gizon azkarra, lore bat bezala ximeldu zena ... Une horretan negarrez hasi zen ikusiz bere haurtzaroa nola hautsia izan zen emazte batengatik. Bat-batean bi esku bere sorbalden gainean pausatu ziren. Itzuli zen eta bere malkoen artean bi emazte ikusi zituen. Biak ez hain handiak. Bat mehea zen. Ile beltz-xuri eta begi berde urdinekin, larru arrosa marroitu eder baina akitua zuen. Bietarik zaharrena zela zirudien. Besteak kirolariagoa iduri zuen, baita azkarragoa ere. Ile marroi ilunak tinko estekatuak eta begi urdin gardenak zituen; bisaian aire hertsitu bat zuen. Biek elkarren biziki eite zuten. Carolina segun zen deia nonbait ikusiak zituela. Mehea hasi zen mintzatzen:

– Egun on, Carolina. Gu zure Frantziako izeba handiak gara. Zinez triste gara zuretzat. Eta, barkatu, ni Miroso naiz eta bera, beste emaztea erakutsi zuen eskuaz, Gaëlle da, ene ahizpa gazteagoa. Afarian ikusiko zaitugu. Gero arte!

“Gero arte” ahul bat erantzun ondoren, Carolina etxeratu zen Elisari afaria prestatzen laguntzera.

Afaria ona zen, baina nehork ez zion kasurik egin. Denak triste ziren ... edo gehienak: Marie-Josiane, amaren ahizpak, aire bitxi bat zeukan bisaian: aire fatalista aire uros batekin nahasia zuen. Carolinak pentsatu zuen pixka bat eroa zela, baina gaixoari senargaia hil omen zitzaion gaztea zenean. Eta duela bi urte aita ... eta orai ahizpa. Normala zen beharbada eroa izaitea ... Edo, beharbada, bere bizi osoan bere ahizpa eder eta famatuaz jelos izan zen eta orai uros bere hiltzeaz? Ez, hala ere, ...

Carolina bere pentsamenduetan galdua zen eta gizon boz sakon eta azkar batek ernarazi zuen. Bere gurasoen notarioa mintzatzen hasi zen:

–Arrastiri on. Gaur elkartuak gara zinez momentu triste batean... bi kide maite galdu ditugu. Ederrak eta biziaren erdian ziren. Baina hala da. Gaur etorria naiz haien asmo guziak beteak izan daitezten. Haien ontasun guziak Carolinari uzten dizkiote. Carolinak, orduan, orotara bederatzi milioi eta erdi eskuratuko ditu. Bere gurasoen beste asmo bat izan da hamabost mila libera emaita umezurztegiko haur bati. Honek erakusten

digu haien bihotz handia! Peter-ek galdegin du itsasontzia bere anaiari uzteko. Wendy-k erran du bere jantzi guziak Marie-Josianen eskuetan ezarzen zituela. Eta haien azken nahia, hau ere Wendy-k galdegina: Carolina bere bi izebekin izaittea da.

Denak harriturik, marmarka hasi ziren. Carolinak ez zekien zer pentsa. Hunkituak ziren bere bi izebek ere ez segur aski. Baina, hala ere, gogo onez onartu zuten neska gaztea berekin.

Afalondoren dena fite pasa zen: familia agurtu ondoren, bere gelara joan zen, puska batzuk hartu, bere ttantten autoan sartu eta Frantziarantz abiatu ziren. Uste baino denbora gutxiago eman zuten hara iristeko, zeren Mirosa eta Gaëlle Belgika ondoan bizi baitziren, Bouvines herrixkan. Herrixka zahar eta ederra zen; haien etxea ttipia eta polita. Harriz egina eta loreak denetan; Carolinak asko maitatu zuen bere etxe berria. Sartu zenean, harriturik ikusi zuen argazkiak zeudela denetan. Bere harridura ikusirik, Gaëllek harroki esplikatu zion:

-Argazkilariak gara. Abantzu mundu osoan ibiliak gara; ikusi, hor Argentinan gara; hor elefantearekin, Indian ...

-Lehen *Timor* egunkariarentzat lan egiten genuen, moztu zuen Mirosak, baina gure erretreta hartu dugu. Egia erran, lehenago irakaslea nintzen kolegio batean, baina hori duela hogeita lau urte utzi nuen, eta Gaëlle segitu nuen. Orai segitzen dugu argazkiak guretzat hartzen.

Carolinak herabeki galdegin zuen:

–Baina noiz utzi duzue lana? Eta zenbat urte dituzue?

–Nik berrogeita hemezortzi urte ditut eta Gaëllek berrogeita hamabost. Eta lana utzi dugu gure anaia maitea, zure aitatxi, hil denean, duela bi urte.

Neskatxaren begirada tristatu zen. Ohartu zen ez zirela bere izebak, baizik eta bere amarenak. Jan zuten eta oheratu, bidaiaz akiturik. Carolinaren ganbara ttipia baina goxoa zen; murrak xuriak ziren eta berehala maitatu zituen bere oheko mihi-seak: urdinak ziren hodei xuriekin. Biharamunean, bere eskolarako uniforme grisa jantzirik joan zen sukaldera. Han, Gaëlle ez ongi iratzarriak oihu egin zuen:

–Ah! Zer da itsuskeria hau?

–Ni naiz, erran zuen Carolinak, usatua baitzen bere amak itsusjizat hartzea.

–Ez zu, soinean duzuna!

–Hau? ... eskolarako jantzia da.

–Eskola, ah bai, ahantzia nuen ... erran nahi du goiz guziz eskolara eraman behar zaitugula?

–Bai, bai, uste dut ... (Gaëllek enoatua iduri zuen).

Harrabotsak iratzarrik, Mirosa hurbildu zen gaueko jantziz begitarte lokartu batekin.

–Zer da?, galdegin zuen.

–Hara, ttipiak eskolara joan behar du!

–Ah ez, ez da ideia ona, eskola hemendik hiru laurdenetara da (haren bisaia bat-batean argitu zen); ez naiz bederatzi urtez irakasle izan deusen-

dako, ni naiz zure irakaslea izanen, Carolina! Isildu zen eta bere ahizpa eta iloba ttipiari erran zien:

–Badituzue bost minutu prestatzeko, bagoaz liburutegira.

Eta bere ganbaran desagertu zen. Carolina eta Gaëllek ez zuten deus ulertu, baina segitu zuten Mirosaren manua.

Liburutegian Mirosak liburu pila bat hartu zuen: hiru historiako liburu, fisikari buruzko liburu batzuk, gramatika liburu bat, Agatha Cristi-ren bi liburu eta Dumas-en *Kameliadun dama*. Goiz osoan Mirosak Carolinari lan eginarazi zion sukaldeko mahainean. Jan eta, Villeneuve-d’Ascq-era joan ziren Carolinarentzat jantzi berri batzuen xerka, besteak ttipiegiak edo zaharregiak kausitzen baitzituen Gaëllek. Carolinak asko maite zituen izeba eta haiek kontent ziren neskari zekiten guzia erakustez.

Hilabete batez Carolina asko aldatu zen: bere matela xuriak arrosa bilakatu ziren, irri egiten zuen eta gauza asko ikasi zituen. Bere lehengo isiltasuna, biziaren jakin min bilakatu zen.

Maiatzaren hirua zen, zortzi egunen buruan bere urte betetzeak izanen ziren. Goizeko “eskola” egin eta gero, Mirosak album zahar bat ekarri zuen bere ganbaratik aire serio eta misteriotsu batekin. Gaëlle hurbildu zen mahainetik. Mirosak albuma ireki eta erran zuen:

–Hau zure amaren aldeko familiaren argazkien albuma da.

Lehen argazkietan hiru haur ikusten ziren: mutiko bat eta bi neska. “Hor ni, Gaëlle eta Eduardo,

zure aitatxi gara”. Beste bizpahiru argazkietan ageri zen Eduardo eta bere amaxiren ezkontza.

Ondokoan bere aitatxi-amaxiek haur bat besoe-tan zeukaten. Carolinak Marie-Josiane ezagutu zuen. Gero bere ama ikusi zuen. Amaren ondoan, Marie-Josianek ardi bat iduri zuen.

–Anitz sufritu du zure izebak, bere ahizpak –zure amak– dena ebasten zion. Eduardo zure amarekin erotu zen; batzuetan, bere emaztea baino gehiago maite zuen alaba. Horregatik, Wendy-k, ttipititik, amaren eta ahizparen amodioak galdu zituen.

Gaëllek bere oroitzapenetan galdua zirudien. Ondoko argazkian Marie-Josianen bisaian irribarre handi bat zegoen. Argazkian hemeretzi urte ukan behar zituen eta gizon gazte eta eder batek eskutik hartzen zuen.

–Nor da bera? Galdegin zuen Carolinak, ez baitzuen sekula ikusi Marie-Josiane gizon batekin.

–Hau Josep da, mutiko oso polita, baina, male-ruski, justu zure izebarekin ezkondu baino lehen bere buruaz beste egin zuen. Marie-Josianek, orduan, zin egin zuen ez gehiago nehorekin ezkontzea. Garai hartan zure amak hamasei urte zituen. Inguruetako neskarik ederrena zen. Mutikoak ehunka zeuden bere gibeletik, baina berak ikusten ez balitu bezala egiten zuen. Eta Josep hil ondoan depresio bat ukan zuen. Denen ustez Josep eta Wendy-ren artean zerbait bazen. Horregatik, Marie-Josianek oraino gehiago gorrotatu zuen bere ahizpa. Beretzat Wendy-k zuen guzia ebatsi nahi zion. Bitxiki, Eduardo, oraino

abilago zen Wendyrekin. Sei hilabetez Eduardo eta zure ama Frantziara joan ziren. Eduardok familia-koei erran zien Wendy sendatzeko joan zirela Frantziara. Gu haiengandik ez baikinen hain urrun, joan ginen haien ikustera. Baina han, Eduardok biziki gaizki errezibitu gintuen; kexu gorrian ezarri zen erranez Wendy oso gaizki zela; ez genuela ikusi behar. Bera, normalki hain lasaia, bere onetik atera zen bisita bat egiten baikenion. Zer nahi gisaz, ez genion obeditu: Wendyri bisita bat egin genion, zeren gaizki zenean zure amak beti dena erraiten baitzigun. Eduardok egia zuen, Wendy zinez gaizki zen, baina mehatu ordeztu potolotu zen. Tori, behazu argazki honetan ...”.

Argazkia hartu eta hurbiletik begiratu zuen. Bere ama zen, gaztea, irri triste eta eder batekin. Bai Mirosak egia zuen, potoloa zen, oso potoloa. Baina ...

–Baina esperantzetan da !!!, oihukatu zuen harriduraz. Gaëllek argazkia eskuetatik hartu zion. Eta ongi so eginez ohartu zen Carolinak egia zuela. Bere ahizpa begiratu zuen eta erran zuen:

–Baina ... nolaz?

–Ene ustez, erantzun zion Mirosak, Eduardo jakinean zen. Horregatik zuen nahi, guk ez hurbiltzea. Baina ninia norena izango ote zen?

–Eduardo edo Josepen haurra da. Begira: Eduardorena bada, erran nahi du ... nire ama bortxatu zuela. Esperantzetan da; orduan, Eduardo oso gaizki sentitzen da, eramaiten du Frantziara denei erranez Wendy-k depresio bat egiten duela, nire

ustez egia dena. Eta ninia sortzen edo hiltzen da. Aldiz, Josep bada, biek elkar maite dute; baina Josepek, Marie-Josianekin ezkondu behar du; orduan bere buruaz beste egiten du. Wendy esperantzetan da eta, gainera, oso triste (beharbada depresio bat egiten du), zer egin ez jakinik, bere aitari dena erraiten dio; berak Frantziara eramaiten du eta ninia sortzen edo hiltzen da.

Bi izebek neskaren argitasunaz harriturik egon ondoren, Mirosak erran zuen pentsakor:

—Ez, bi kasuak ez dira posible, edo bederen lehen, zeren Eduardo ez zen batere horrelakoa, bere alaba asko maite zuen, beharbada sobera, baina ez zuen sekula, sekula bortxatuko, eta sinets nazazu, ene anaia baitzen! Aldiz, beste ideia posible da, baina elkar maite bazuten ere, Wendy ez zen sekula esperantzetan izanen bere ahizparen senargaiarekin. Ahal bazuen ere.

Carolina bere baitan hobeki sentitu zen Mirosak segurtarazi zionean Eduardok ez zuela sekula bere alaba bortxatzen ahal...

Orduan erabaki zuten biharamunean Amsterdamera itzultzea, han gauza bat edo bi argitzen ahal zituztenez jakiteko, eta etxe handian garbiketa pixka baten egiteko. Goizean goizik auto ttipian sartu eta Amsterdameko bidea hartu zuten. Eguerditan heldu ziren hara eta bazkaldu eta, etxea miatzen hasi ziren. Carolinak bere ganbara berriz ikusi zuen eta ohartu zen ez zela biziki alaia, oso iluna zela. Ganbaran gaizki sentitu zen; hila bazen ere, bere amaren oroitzapena etxean zen.

Eta Carolina lehen bezala ttipi eta itsusi sentitu zen. Bere biziko lehen aldikoz bere gurasoen garban sartu zen. Lekutsua zen. Zurezko ohe handi bat erdi-erdian zegoen. Alimaleko zurezko armairu bat ohe ondoan xut-xuta zen. Armairua ireki eta hutsa zela estonatu zen. “Egia, pentsatu zuen Carolinak, Marie-Josianek beztimedu guziak hartu ditu.” Armairuaren aurrez aurre Wendy-ren bulegoa zegoen. Ageri zen berea zela: dena bikainki ordenatua baitzen. Bulegoan mirail handi bat bazen. Carolinak tiretak ireki zituen banaka. Lehenean ile apaintzekoak ziren. Bete bete zen. Bigarrenean laneko paperak ziren. Carolinak denak begiratu zituen. Wendyk egin zuen film bakoitzarentzat karpeta bat bazen. Barnean, lansariak, argazkiak... Hirugarren tireta gakoak hetsia zen. Neska gazteak ez zuen denbora asko ezarri gakoa atzemaiteko: Txinatik ekarritako amaren bitxien ontzian zen, bere ezkontzako eraztunaren ondoan. Azken tireta ireki zuen eta barnean atzeman zituen hiru argazki, ontzi hetsi bat eta panpina eder baina zahar bat. Argazkietarik lehenean Wendy bere aitarekin zen; hamalau urte ukan behar zituen; beste bat bere ezteietan; hor bere arropa xuriarekin biziki ederra zen, baina aire e-noatu batekin irri egiten zuen; eta azkenean ume potolo bat. Bera edo Carolina segurenaz ere. Gero ontzia ireki zuen. Barnean amodio hitz zahartu bat, lore ihartu bat, luma urdin bat eta bizpahiru gutun. Gutunak zaharrak ziren, baina errazki irakurri zituen. Azkena irakurri-eta bere izebak deitu

zituen harroki gutun ttipia erakutsiz. Mirosak gora irakurri zuen: “Wendy maitea, zure erantzunak oso min egin dit, beharbada anitz sufritu duzu, baina sufritzen dudanaz ez dakizu ezer; gau hartan, munstro harek egin dizuna ez da barkagarria. Ni, han nintzen, dena ikusi nuen eta ez nuen deus egin. Hau barkagarria dea? Bai, lehenik, mozkorra bainintzen, ez nintzen egoera on batean, eta bada-kizu... Ene bizi osoan irudi izigarri haiek ene burura etorriko dira. Gainera, gizon gazte baten hiltzea ene baitan dut. Orduan, otoi entsea barkatzera, ez bazara arribatzen ulertuko dut, baina atxiki buruan beti maitatuko zaitudala.” Mirosak bekainak zimurtu zituen eta xuxurlatu zen:

–Sinadura hau irakurtezina da. Baina idazkera honek zerbait oroitarazten dit... Bere pentsamenduetan galdua zen.

Gaëllek gutunari begirada bat bota zion.

–Baina, nik ere idazkera hau ezagutzen dut... Goaita... Eduardorena da! Baina orduan haurra norena da?

Beste biek ez zioten deus erantzun. Eta nekatuta Bouvines-era sartu ziren. Egunak emeki-emeki pasatu ziren; maiatzaren hamaikan Carolinaren urtebetetzeak ziren eta izebek argazki makina bat oparitu zioten. Carolina pozik zen eta ikusten zuen guzia hartzen zuen. Baina gauza batek nardatzen zuen: bere amaren beste haurra bizirik ote zen? Galdera hau mila aldiz etorri zitzaion burura; eta azkenik erantzuna jakin zuen: anaia bat edo ahizpa bat zuen. Bi proba bazituen: lehenik, Eduardo eta

bere alaba sei hilabetez egon ziren Frantzian. Erran nahi zuen umea sortu zela. Gero bere gurasoen notarioak erran zuen, Wendy-k sosa umezurztegi batera igorri zuela; erran zuen sosa haur bati igorria zela; eta haur hau bere ahizpa edo anaia erdi handia izan behar zen... Hurrengo goizean, bere izebei bere pentsaketak azaldu zizkienean, harriturik egon ziren. Baina aldi honetan, Gaellek telefonoa hartu eta notarioa deitu zuen galdegiteko:

–Egun on, nahi genuke jakin, Wendy-k umezurztegian utzi dituen hamabost mila liberak, nori zuzenduak diren.

–Hau, ez dakit erraiten ahal dudanez... baina uste dut hamabost urteko haur bati utzi diola sosa. Gero, bere izena ez dakit. Sosa, etxeko zuzendariari zuzentzen zion. Hark badaki.

–Eta zein da etxe hori?

–Beît hun der etxea da.”

–Milesker anitz!

Gaëllen bisaian irriño bat agertu zen. Beste bie erran zien:

–Prest izan, bost minuturen buruan, bagoaz Amsterdamera!

Bidean ahal bezain fite joan ziren eta hiru oren eta erdiz heldu ziren Amsterdamera, uros eta jakin min handiarekin. “Beît hun der” etxera arribatu ziren. Amsterdametik kanpo, parke lekutsu baten erdian etxe handi eta zahar bat zegoen. Portalean, urrezko plaka baten gainean, letra beltzez idatzia zen: Beît hun der Umezurztegia. Carolina uros

izan zen ikusiz bere ahizpa edo anaia ez zela leku zikin eta triste batean. Eta bere izebeekin batera, parkea zeharkatu zuen. Alimaleko izaien itzalean, denetan, haurrak lasterka eta irriz ari ziren. Beste mundu batean zirela zirudien, ez zieten batere hiru kanpotarrei kasu emaiten. Etxean sartu ziren ate altu eta pisu batetik. Erizain gazte bat agertu zitzaien. Ahots apal batez galdegin zien zertarako etorriak ziren. Zuzendaria ikusi nahi zutela jakinez, gela ongi apaindu batera lagundu zituen. Aulki goxo batzuetan jarri ziren zuzendaria goaitatzeko.

Etxe on haren egilea emazte zahar bat zen. Ile zurixkak zituen eta begi beltz-beltzak. Boz goxo batez, galdegin zien haien bisitaren zergatia. Mirosak erantzun zion, den-dena esplikatu, hamabost hamasei urteko neska edo mutiko baten izena jakin nahi zutela. Emazte zaharra, aski luzaz isilik egon ondoren mintzatu zen.

–Bai, ulertzen dut, xerkatzen duzuen pertsona neska bat da. Bere amak, erran zidan Fiona deitzen dela eta 1951eko Otsailaren 6an, sortua dela. Hemen ontsa bizi da, baditu lagunak... Fiona Dzar... Zinez istorio arraroa berea... Hara, duela hamabost urte, neska izigarri eder eta gazte bat bi hilabeteko nini batekin hurbildu zitzaidan. Bere gibeletik, bere aita zetorren. Neska gaztea Wendy zen, Eduardo bere aitarekin. Ene bulegoan negarrez hasi zen. Eta esplikatu zidan bere ahizparen senargaiak bortxatu zuela. Eduardok segitu zuen –bera ere negarrez– dena ikusi zuela, baina moz-

korra zela eta zuela deus egin. Gaixoeak biziki triste ziruditen. Ez naiz denetaz ongi oroitzen, baina uste dut Josep, hau da, bortxatzailea, eraila izan zela bizpahiru egun ondoren. Eta, ene ustez, Eduardok hiltze horrekin badu zer ikusia... Baina berdin du, hiruk hilak dira eta istorio honetan Fiona da gelditzen. Pentsatzen duzuen bezala, neska gazteak ez daki ezer eta ez nuke nahi ezer jakitea.

Mirosa, Gaëlle eta Carolina, istorio izigarriaren menpe, oraino isilik ziren.

Zuzendari abilak segitu zuen:

–Fiona Dzar, bai, neska bitxia, bere ama bezain ederra, baina izaera ezberdinekoa, beti ametsetan, goxotasun handi batekin, beti beste nonbait...

–Bere aita bezala ene ustez, moztu zuen Carolinak, orai dena edo abantzu dena ulertu dut. Ene ustez Josepek ene ama bortxatu du mozkorra baitzen, ene aitatxi bezala. Gero, Eduardok egia jakin duenean, Josep puzarazi du hiltzera. Ene amak Josep ez zuen maite, ez, bere depresioa bortxaketari zor zion. Eduardok bere laguntza eskaintzen dio, dena ikusi baitzuen, eta ikusita ez zuelako deus egin. Orai, nahi nuke Fiona ikusi. Posible baldin bada...

Zuzendariak buruarekin baietz egin eta norbait igorri zuen Fionaren xerka.

Fiona gelan agertu zenean, denek begiak handi ireki zituzten: Fionak Wendy iduri zuen! Dena Wendyk bezalakoa zuen; ber ileak, ber eskuak eta ber gorputz formak. Dena berdin zuen salbu begiak: Fionaren begiak argiagoak ziren. Eta ez

mespretxuz beteak, ez, urrunak. Carolina, itsusia baino itsusiagoa sentitu zen, baina Fionak egin irriak, ahantzarazi zion haren edertasuna, zeren irri horrek Wendyren maitasuna ere erakusten zuen. Carolinak une horretan ulertu zuen amak maitatu zuela, zer nahi gisaz...